

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018**

**OGASUNA ETA EKONOMIA**

1. «Non ikusten duzu Europa Euskadin?» argazki-lehiaketaren zazpigarren edizioa ..... 2



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**«Non ikusten duzu Europa Euskadin?» argazki-lehiaketaren zazpigarren edizioa**

#### 2.- Araua

2018ko martxoaren 10eko Agindua, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, «Non ikusten duzu Europa Euskadin?» argazki-lehiaketaren zazpigarren edizioaren deialdia egiten duena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/03/1801434a.shtml>

Ebazpena, 2018ko maiatzaren 3koa, Ekonomia, Finantza eta Aurrekontuen sailburuordearena, «Non ikusten duzu Europa Euskadin?» argazki-lehiaketaren zazpigarren edizioeko sarien esleipena onesten duena: ez da EHAAn argitaratu, lehiaketaren plataforman baizik.

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Komunikazio-ekintza horrek honako xede hauek dauzka:

- Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei FEDER funtsak eskualde-garapenean duen parte-hartzea ezagutaraztea; izan ere, autonomia-erkidego honen garapen ekonomikoa sustatzen duten inbertsio-jarduerak, proiektuak eta ekimenak finantzatzen ditu funts horrek.
- Gazteek Europarekin zerikusia daukaten alderdi eta gaietan duten interesa piztea, berengandik hurbil dagoen mintzaira teknologikoa erabiliz.
- Sare sozialak Europako hedabide berri gisa finkatzea eta gazteek beren artean saretzeko erabil ditzatela sustatzea.
- Erreferente bihurtzea mezu publikoen hedapenean, komunikazio-jardueretan elementu berritzaileak sartuta.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020ko FEDER Programa Eragilearen barruan sartuta dago lehiaketaren proiektua. Lehiaketa ez zen txertatzeko jarduera gisa bakarrik hautatu; izan ere, dauzkan aurrekariak direla-eta (aurreko sei edizioak), jarduera ontzat jotzen da, eta, are, Europako Batzordeak ere ideia errepikatu du, urtero antolatzen baitu ezaugarri berberak dituen lehiaketa bat.

Zazpigarren edizioan, 161 argazki jaso dira (aurreko edizioan baino % 75 gehiago), eta, guztira, 13.834 boto eman dira (aurreko edizioaren hirukoitza); beraz, seigarren edizioan baino parte-hartze askoz ere handiagoa lortu da. Hala, testuinguru berrira egokitzeko xedez egin diren aldaketek emaitzak optimizatzeko balio izan dutela esan nahi du horrek. Argazkien kalitate-mailak gora egin du, eta argazkietan jasotako motiboak gehiago egokitu zaizkie FEDERen proiektu zehatzei.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ez da egokia atal hau.